Aldayeta Klub Nautikoa

Bela eskola eta piraguismo elkartearentzat egoitzak

Ikaslea: Maialen Landa
Tutorea: Fernando Bajo





Ardatz nagusi bat:

Proiektu osoa ardatz nagusi baten inguruan antolatzen da. Ardatz hori gaur egun bertan kokatzen den eraikin soziala inguruko naturarekin lotzeko asmoarekin sortu da, proiektu lineal bat sortuz. Ardatz horretan kokatuko dira proiektuko erabilera gehienak.



Eraikin nagusiaren kokapena:

Proiektuak eraikin nagusi bat izago du, goian azaldutako ardatzean kokatzen dena. Horretaz gain, eraikin sozialaren alboan kokatuko da luzetara, urtegiaren ertzari fatxada nagusiak eurpegia emanez. Eraikinak fatxada bakarra izango du, beste guztiak lurraren azpian geldituko dira.



Eraikinera hurbilketa:

Gaur egun eraikinaren hurbilketa goiko aldetik egiten da. Proiektuan hori aldatu egiten da hurbiltzen den errepidea beherasino jeitsiz, horrela eraikin berria azken momentura arte ez da ikusiko eta partzelan sartzen zarenetik ibilbide bat proposatzen da. Ibilbide hori ikuspegi panoramikoekin hasten da partzelaren goiko aldetik, aldapan jeitsi ahala eraikin zaharra ikusiko da eta eraikin berria ardatz nagusian sartu arte ez da ikusiko.



Natura arkitektura bihurtu:

Eraikinaren bolumena luzetarako kubo bat izan beharrean, sartu irten batzuk sortzen dira. Sartu irten hauek inguruko topografiara moldatuz sortu egin dira. Era batean esan genezake eraikinak natura arkitektura bihurtzen duela. Eraikin berriak natura eta eraikin sozialaren arteko lotura moduan funtzionatzen du. Trantsizio bat sortzen du, ikutu gabeko naturatik eraikinerainо. Eraikinak inguruko sestren formako hartzen duen arkitektura dela esan genezake.



Uraren erabilera:

Proiektuak uraren lotura daukan programa daukanez, erabaki egin da erabilera batzuk uretara eramotea. Gaur egun ontziratze bat dago, bazkideen belaontziak dauzkanak. Hori eraldatzea da ideia eta eraikin orin bat sortzea haren gainean, belaontzietaz gain, ontzi arinak eta kayakak gordetzeko gunezak eduki ditzakeen eta aldi berean babestutako igerileku natural bat sortu egiten da.



Gaur egungo eraikinaren sarrerak:

Erakin sozialak bi sarrera nagusi dauzka; bat goiko solairutik, errepidea heltzen den puntuan; eta bigarrena behe solairutik belaontzietara bideratzen duena.



Gaur egungo eraikina ingurura ireki:

Eraikin sozialak behe solairu guztiz itxia dauka, ez dauka kanpoarekiko indako kontakturik. Eraikin berria haren ondoan jartzean, honen behe solairua irekitzea proposatu egiten da, inguruarekiko lotura gehiago izan dezan.



Hiru ibilbide:

Lehen azaldutako ardatz nagusian 3 ibilbide proposatzen dira. Lehenengoa, uraren ertzetik, aparkalekutik Punta Viboraraino. Bigarrenak malda desberdinen bidez, aparkalekua eraikin oztialaren behe solairuarekin lotzen du, hau igaroz eta puntaraino helduz. Hirugarrenak aparkalekua eraikin sozialaren gaur egungo sarrera nagusiarekin lotzen du.



Eraikina ingurura moldatu:

Oinean ikusi dugun bezala, altxaeran ere eraikina inguruko topografiara moldatu egiten da. Horregatik punturik altuenean bi solairu besterik ez daukza. Beste guneetan bat izango du. Lehen azaldutako ibilbideek malda desberdinak izango dituzte ingurunera egokitu ahal izateko eta eraikinaren atzeko aldea bere osotasunean lurraren azpian egongo da, fatxada bakar bat ogerian utziz.



Eraikin nagusiaren sarrerak:

Eraikin berriak ibilbide desberdinetan sarrera desberdinak izango ditu. Solairu bakoitza kanpoarekin egongo da zuzenean lotuta, beste solairuarekiko independiete izanik. Eraikin berria, eraikin sozialarekin lotuta egongo da pasealekuen bitartez.



Bi bolumen berri:

Bi bolumen berri proposatzen dira: eraikin nagusia, lurrean kokatuko dena eta topografiara moldatzen dena itxura pisutsua edukiz; eta uretako eraikina, txikiagoa eta orina izango dena ontzi baten itxura hartuz.



IPARRALDEKO ALTXAERA
E:1/250



BADIAKO ALTXAERA
E:1/250

PROGRAMA

KIROL GUNEAK

- Uretako kirolak: Gune egokituak uretako kirol desberdinak egin ahal izateko. Aldagelengadik hurbil. Iristeko erraza
- Gimnasioa: Urari konplementario. Barruan kirola egiteko aukera. Gela handi bat makina desberdinekin
- Yoga-dantza gela: Tarimadun gela libre bat. Atsegina bertan aktibitate desberdinak egin ahal izateko

ERABILERA ANITZEKO GUNEAK

- Konferentzia gela: Erabilera anitzeko gela. Konferentziak egiteko aproposa akustikoki bai espazio aldetik
- Ikasgela: Erabilera anitzeko gela. Klase teorikoren bat eman behar izanez gero aukera edukitzeko
- Kanpo espazioak: Gune zobalak. Kirola, aisialdia edo barruko erabilerak kanpora ateratzeko aukera

KANPO ESPAZIO EGOKITUAK

- Egoteko guneak: Eraikinean zehar hainbat egoteko gune sortzen dira. Bai uraren ertzean, bai eraikinean zehar.
- Igerileku naturala: Ontzien inguruan igerileku naturala agertu. Asisialdirako edo igeri egiteko. Babestutako gunea
- Kirol gueak: Kanpo espazioen aprobetxamendua bai uretako kirolak egiteko baita bestelakoak ere
- Pasealekuak: Pasealeku desberdinak, eraikinean zehar, baita uraren ertzean edo naturatik

GAINERAKO GUNEAK

- Komunak: Komun irisgarriak eta aurkitzeko errazak. Kanpo aktibitateengandik hurbil
- Aldagelak: Hauek ere aurkitzeko errazak, gimnasioarengandik hurbil baita uretako aktibitateengandik
- Onzti biltegiak: Ontzi orinen biltegiak uretan bertan kokatutak. Uretara ateratzea erraztu
- Onztiralekua: Bazkideen belaontzien gunea inguruko beste aktibitateei lotuta

ERAIKIN SOZIALA

Eraikin soziala dagoen bezala mantentzen da.

- Taberna: Eraikin sozialaren barnean. Taberna txiki bat bazkideentzat bakarrik irekita
- Egongela: Bazkideak elkartzeko gunea, kartetan jolasteko, deskantsatzeko edo hitz egiteko aukera
- Administrazio gunea: Kluba administratzeko bulegoak ere gaur egun dauden lekuan amntenduko dira

OIN OROKORRA

E:1/750



Eraikinaren ingurua oso maldartsua da eta gaur egun bertan kokatzen den eraikin soziala ez bezala, lurrean kokatzen den eraikin berria inguruko topografiara moldatu egin nahi da, horregatik, oinean forma irregularrak hartzen ditu, bertatik pasatzen diren sestrak ikusiz. Altxaeran berriz, punturik altuenean bi solairu izango ditu, horrela ere topografiara moldatuz. Eraikinera heltzea errepide baten bidez egingo da eta haren punta batetik hasiko da ibilbidea. Eraikina oso luzea da eta estua proportzioan, horregatik, erabilerak bi solairutan banatzen dira. 3 ibilbide proposatzen dira eraikinan zehar: lehenengoa estakizaren gainetik, eraikin sozialaren sarrera nagusiraino, bigarrena, eraikin berriaren lehen solairutik haren erabilera desberdinetara; eta hirugarrena uraren ertzetik, eraikinetko beste erabilieretara edo badiako beste puntuetara.

Uretan kokatzen den eraikinak berriz ez du inguruarekin mimetizatu egin nahi. Uraren gainean kokatzen da eta egitura eta itxitura arin bat dauzka, ontzien tankera hartu dezan. Bi eraikinen arteko kontraste bat lortu nahi da.

Lurrean kokatzen den eraikin nagusiak ere, gaur egun bertan kokatzen den eraikin-sozialaren eta induruko topografiaren trantsizio moduan funtzionatzen du.